

ARAZO EGOERA

EKOLOGISTA AL NAIZ?

ARLOA: Gizarte Zientziak, Natur Zientziak, Biologia, Etika, Teknologia

MAILA: DBH osoa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



OHARRA

Irakasle bakoitzak azken emaitza zein izan daitekeen erabaki dezake, kasu honetan ordenagailu bidez eginiko posterra egitea gomendatzen den arren. Irakasleak erabakiko du eskuz eginiko posterra, txosten bat, aurkezpen bat edo bestelakoren bat egingo den.

TESTUINGURUA

Interneten lan bat egiten ari zinen bitartean, kartel erakusketa batekin topo egin duzu. Horietatik asko ezagutzen dituzula iruditu zaizu.

Naturan hezten



ARAZOA

Argazki erakusketaren iruzkinetara jo duzunean, kartel horien aldeko eta aurkako iruzkin ugari irakurri dituzu. Badirudi gai gatazkatsua dela mugimendu ekologistena.

XEDEA

Euskal mugimendu ekologistak historian zehar izan duen bilakaera ezagutzea, borroka ezberdinek amankomunean duten helburua ulertzea eta gaur egun dauden arazo edo mugimendu nagusiak identifikatzea.

HELBURUAK

- Ekologismoaren sorrera historian kokatzea.
- Historian zehar izan diren mugimendu ekologista garrantzitsuenak ezagutzea (mundu mailakoak nahiz lurralde edo eskualde mailakoak).

Naturan hezten

- Historian zehar Euskal Herrian izan diren mugimendu ekologistak mapan eta denboran kokatzea.
- Mugimendu sozial honen oinarrian dauden printzipioak identifikatzea.
- Emakumeek ekologismoan izan duten garrantzia ezagutzea.
- Eskualde edo herri mailako mugimendu ekologistak edo haien eskabideak ezagutzea eta ulertzea.
- Ekologismoak mugimendu sozial gisa duen garrantziaz ohartzea.
- Mundu mailako arazo nagusiak identifikatzea.
- Euskal Herriko natur ondarea eta orokorrean gure planetarena ere babesteko beharraz kontzientziatzea.
- Gizartean ditugun arazo nagusien aurrean izpiritu kritikoa garatzea eta ideiak defendatzen ikastea.
- Gaur egungo testuinguruan ekologismoak duen paperari buruz gogoeta egitea.
- Etorkizunera begira ekologismoak ze leku izango duen hausnartzea.

ATAZA

Euskal mugimendu ekologistaren bilakaeraren eta gaur egungo egoeraren azterketa bat egin eta informazio guztia poster batean sintetizatzea.

JARRAIBIDEAK

- Naturan hezten proiektuak gomendaturiko **bideoak ikusi** gaian murgiltzeko.
- Arazo egoera aurkeztu ondoren, ikasleak 3-4 pertsonako taldetan banatuko dira, eta lantalde bakoitzak kartel baten edo biren **lanketa egingo** du. Honako galdera hauei erantzuten ahalegindu daitezke.
 - Noizkoak ote dira kartel horiek?
 - Non kokatzen da arazo hori?
 - Zein da horietako bakoitzaren atzean dagoen errealitatea?
 - Zein zen mugimendu horren helburua?
 - Zein talde ekologistak bultzatzen du?

Naturan hezten

- Behin kartelak aztertu ondoren, euskal ekologismoak azken hirurogei urteetan izan duen **bilakaeraren kronologia** zehaztu.
- “Ez, eskerrik asko” **pelikula ikusi**.
- Zein dira gaur egun **Euskal Herrian ditugun mugimendu (elkarte) ekologista nagusiak?** (Baliabideak)
- Zein dira gaur egun **mundu mailan ditugun mugimendu ekologista nagusiak?** (Baliabideak)
- **Emakumeak** garrantzi berezia izan du **mugimendu ekologistan**. Aztertu zein diren Euskal Herriko zein nazioarteko mugimendu ekologisten aurpegi nagusiak.
- **Eztabaida talde handian**. Klasean ba al dago ekologistarik? Eta ekologisten aurka dagoenik? Hala bada, errespetuz beteriko eztabaita bat egingo da guztien artean. Alde bakarrekoak egongo balira, zenbait ikasle kontrako aldekoen argudioak defendatzen ahalegindu beharko lirateke.
- Behin ekologismoaren ikuspegi zabalago bat izanik, eginiko ikerketa guztia poster bakarrean **sintetizatuko** da (Google Slides edo PPT erabili daiteke). Diseinuak ahalik eta erakargarriena izan behar du, eta gainontzeko ikasleentzat ulerterraza izan beharko du.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).